**BAS 2022**
APIRILAK 13 ABRIL, 19:30

**LES ARTS FLORISSANTS - WILLIAM CHRISTIE**
**Gwendoline Blondeel** sopranoa / soprano
**Rachel Redmond** sopranoa / soprano
**Myriam Rignol** zango-biola / viola da gamba
**William Christie**
zuzendaritza musikala eta organoa / dirección musical y órgano

## *Leçons de Ténèbres*
*Lecciones de tinieblas para el Miércoles Santo*

**FRANÇOIS COUPERIN (1668-1733)**
Primera Lección de Tinieblas para el Miércoles Santo

**SIEUR DE MACHY (1655-1700)**
Preludio en re

**FRANÇOIS COUPERIN (1668-1733)**
Segunda Lección de Tinieblas para el Miércoles Santo

**JEAN DE SAINTE COLOMBE (1640-1700)**
Chacona en re

**FRANÇOIS COUPERIN (1668-1733)**
Tercera Lección de Tinieblas para el Miércoles Santo

Les Arts Florissants taldeak errotik ezagutzen du François Couperin-ek ahots bakarrerako eta bi ahotsetarako idatzitako Ilunpeko Lezioak lana, sarritan interpretatzeaz gain grabatu ere egin baitu. Berez, Aste Santuko elizkizun jakin batean interpretatua izateko idatzi zen, hain zuzen ere “Ilunpe” izeneko ekitaldian (batzuetan “Dolamenak” ere deitua). Pazko astearen aurreko asteazken, ostegun eta ostiraleko maitinak gau ilunean egiten ziren, eta eguzkia atera bitartean kandelak emeki itzaliz joaten ziren gau-beila ezin luzeago hartan, ilunpea osoki nagusitzen zen arte. Testu desberdinak izan arren, Maitinetarako hiru ofizio hauek egitura berdina zuten oinarritzat: hasteko, Nokturno bat salmo bat errezitatuz, eta ondoren “Jeremias profetaren Dolamenetatik” hartutako “Lezio” bat, bokalizazio zorabiagaarriz kantatua, zeinaren testua alfabeto hebrearreko letra batekin (Aleph, Beth, Ghimel, Daleth, etab.) puntuatzen baitzen. “Lezio” bakoitzaren atzetik “Erantzun” bat dator, Kristoren pasioaz mintzatzen den prosazko poema moduko bat. Denborarekin, gau-elizkizun hauek bezpera arratsean egiten hasi ziren, erosoagoak egiteko eta partaide gehiago izan zitzaten. Eta, hain zuzen ere, XVI. mendean ohitura berri bat sortu zen publikoa erakartzeko: musika polifonikoa konposatzea fedea eta halako sentsualitate irakitu bat uztartzen duten testu horien gainean. Interpretazio berri honetan, William Christiek tinbre lodiko bi sopranoren esku utzi ditu Leçons de ténèbres hauek: Gwendoline Blondeel eta Rachel Redmond, azken hau Christieren Le Jardin des Voix 2 akademiako kide izana 2011ko edizioan.



Las Leçons de Ténèbres de François Couperin para una y dos voces son una obra que Les Arts Florissants conocen a fondo, ya que las han grabado e interpretado en numerosas ocasiones. Están destinadas a una ceremonia comúnmente llamada Ténèbres (a veces también Lamentaciones), que es una liturgia específica de la Semana Santa: el servicio de Maitines del miércoles, jueves y viernes de la semana que precede a la Pascua se celebraba, de hecho, en la oscuridad de la noche, apagándose las velas progresivamente a medida que el día se levantaba durante esta vigilia particularmente larga. Diferentes en cuanto al texto, estos tres servicios de Maitines se basan en la misma estructura: a un Nocturno que comienza con la recitación de un salmo le sigue una “Lección” tomada de las “Lamentaciones del profeta Jeremías”, cuyo texto está puntuado por una de las letras del alfabeto hebreo (Aleph, Beth, Ghimel, Daleth, etc.), cantada en vocalizaciones vertiginosas. Cada una de las “Lecciones” va seguida de una “Respuesta”, una especie de poema en prosa que comenta la pasión de Cristo. Por comodidad, estos servicios nocturnos se trasladaron finalmente al día anterior, para que los fieles pudieran asistir.
Y fue para atraer a este público que, a partir del siglo XVI, se adoptó la costumbre de componer música polifónica sobre estos textos, en los que la exaltación de la fe parece fundirse con una forma de sensualidad exacerbada.



**Gwendoline Blondeel** sopranoa / **soprano**
Gwendoline Blondeel-ek Académie de la Monnaie-ren saria jaso zuen 2020an. Kalifikazio gorenekin bukatu zuen kantu lirikoko masterra IMEPen 2019an; urte horretan bertan bosgarren saria eta entzulegoaren saria irabazi zituen CIALN lehiaketan, eta baita ere lehen saria Froville-ko kantu barrokoko lehiaketan. Ikasketak amaitu ondoren (nagusiki Élise Gäbele eta Ana-Camélia Stefanescurekin), bere burua trebatzen jarraitu du Angélique Nodlus-ekin.

Hainbat adituren aholkuak jaso ditu Académie de la Monnaie-n, hala nola Patricia Petibon, Pascal Dusapin, Sandrine Piau edo Roberta Alexander-enak. Maiz lan egiten du William Christie, Yann Molénat, Benjamin Attahir, Bassem Akiki edo Kazushi Ono bezalako maisu handien zuzendaritzapean. Mikael Serre, Roméo Castellucci, De Cock, Marie Neyrinck eta Olivier Lexa-ren ekoizpen-lanetan parte hartu du. Gwendoline Blondeel-ek paper hauek interpretatu ditu: Lakmé (Lakmé, Delibes), Gobernanta (El hombre de La Mancha, Mitch Leigh), Olympia (Les contes d'Hoffmann, Offenbach), Louise (Les Mousquetaires Au Couvent, Varney), Bigarren mirabea (Tintagiles, Attahir), Bigarren ahizpa (Alladine y Palomide, Attahir), eta abar. Oratorioei dagokienez, kantatu ditu besteak beste Mozarten Requiem, Bachen Pasioa San Joanen arabera eta Magnificat, Vivaldiren Magnificat, Buxtehude-ren Membra Jesu Nostri eta Couperin-en Ilunpeko Lezioak.

Colonna-ren O espléndida dies (Ricercar zigilua) grabatu du Scherzi Musicali taldearekin eta Nicolas Achten-en batutapean. Arestian interpretatu dituen paperen artean aipatzekoak dira L'Histoire enchantée de Lakmé obrako Lakmé Walloniako Errege Operan, Il palazzo incantato obrako Fiordiligi eta Poetry Dijoneko Operan, Leonardo García Alarcónen zuzendaritzapean, eta Offenbach Report obrako Fisk andrea Opéra National de Lorraine aretoan. Kontzertuak eskaini ditu areto aski garrantzitsuetan, esaterako Dijoneko Auditorioan eta Versailleseko Errege Kaperan Leonardo García Alarcónen batutapean, eta baita ere Ambronay Jaialdian eta Pariseko Filarmonikan Les Arts Florissants taldearekin eta William Christie-ren zuzendaritzapean.

Gwendoline Blondeel ha sido premiada en 2020 por la Académie de la Monnaie. En 2019 completó sus estudios de máster en canto lírico en el IMEP con la máxima distinción, para obtener el mismo año el quinto premio y el premio del público del CIALN, así como el primer premio del concurso de canto barroco de Froville. Tras sus estudios, principalmente junto a Élise Gäbele y Ana-Camélia Stefanescu, ha continuado su formación con Angélique Nodlus.

Ha recibido los consejos de Patricia Petibon, Pascal Dusapin, Sandrine Piau o Roberta Alexander en el marco de la Académie de la Monnaie. Trabaja además habitualmente bajo la dirección de maestros como William Christie, Yann Molénat, Benjamin Attahir, Bassem Akiki, Kazushi Ono. Ha participado en producciones de Mikael Serre, Roméo Castellucci, Mikael De Cock, Marie Neyrinck, u Olivier Lexa. Gwendoline Blondeel interpreta los papeles de Lakmé (Lakmé, Delibes), La gobernanta (El hombre de La Mancha, Mitch Leigh), Olympia (Los cuentos de Hoffmann, Offenbach), Louise (Los mosqueteros en el convento, Varney), Segunda sirvienta (Tintagiles, Attahir), Segunda hermana (Alladine y Palomide, Attahir), etc. En el ámbito de los oratorios ha cantado, entre otros, el Réquiem de Mozart, la Pasión según San Juan y el Magnificat de Bach, el Magnificat de Vivaldi, Membra Jesu Nostri de Buxtehude, o Lecciones de Tinieblas de Couperin.

Gwendoline Blondeel ha grabado O espléndida dies (sello Ricercar) de Colonna con Scherzi Musicali, bajo la dirección de Nicolas Achten. Entre sus últimos papeles, destaca Lakmé en la ópera participativa L'Histoire en chantée de Lakmé en la Ópera Real de Valonia, Fiordiligi y Poetry en Il palazzo incantato en la Ópera de Dijon, bajo la dirección de Leonardo García Alarcón, o la Sra. Fisk en Informe Offenbach en la Opéra National de Lorraine. Ofrece conciertos en salas como el Auditorio de Dijon o la Capilla Real de Versalles bajo la dirección de Leonardo García Alarcón, así como en el Festival Ambronay y en la Filarmónica de París con Les Arts Florissants y William Christie.

**Rachel Redmond** sopranoa / **soprano**
Rachel Redmond soprano eskoziarra Jardin des Voix ekimeneko (kantari gazteentzako Arts Florissants akademia) kide izateko hautatua izan zen 2011ko edizioan. Talde harexekin debutatu zuen Atys obran (Lully), eta harrezkero hainbat obra interpretatu ditu, hala nola Les Fêtes vénitiennes (Campra), Jephtha (Handel), Dido and Aeneas (Purcell), Acis and Galatea (Handel), David and Jonathas (Charpentier), Caecilia, Virgo et martyr eta Actéon (Charpentier), eta hainbat kontzertu-egitarau ere bai.
Sarritan kantatzen du Jordi Savallen esanetara eta hainbat talde eta orkestrarekin kolaboratzen du, besteak beste hauekin: Centre Internacional de Música Antigua, Capella Mediterranea, Collegio Ghislieri, Baroque Music Centre of Versailles, Ensemble Correspondances, Ensemble Aedes, Norwegian Chamber Orchestra, Royal Liverpool Philharmonic Orchestra eta BBCko Orkestra Sinfoniko Eskoziarra. Duela gutxi debutatu du Susannaren paperean (Le nozze di Figaro, Mozart) English Touring Opera orkestrarekin, eta Dido and Aeneas interpretatu du Aix-en-Provence-eko jaialdian. Aurrerantzean dituen konpromisoen artean aipatzekoak dira Freiburger Barockorchester-ekin (Kristian Bezuidenhout-en zuzendaritzapean) eta Trevor Pinnock-ekin eskainiko dituen kontzertuak. Bestalde, Ensemble Caravansérail taldearekin arituko da Saintes-eko jaialdian eta Dunedin Consort taldearekin Lessay-ko jaialdian. Reinhard Keiser-en Brocke's Passion interpretatuko du Amsterdameko Concertgebouw aretoan eta Handelen Mesias eta The English Concert kantatuko ditu Trevor Pinnock-en zuzendaritzapean. Dalinda (Ariodante) interpretatuko du Göttingen-eko Nazioarteko Handel Jaialdian, Clorinda Monteverdiren Il combattimento di Tancredi e Clorinda-n, eta Belinda Purcell-en Dido and Aeneas obran Helsinkiko Orkestra Barrokoarekin.
Les Arts Florissants taldearekin batera dituen proiektuen artean aipagarriak dira Bachen Magnificat, Handelen L'Allegro, il Penseroso ed il Moderato eta Couperin-en Leçons de tènèbres.

La soprano escocesa Rachel Redmond fue elegida como miembro en la edición 2011 del Jardin des Voix, la academia Arts Florissants para jóvenes cantantes. Con este conjunto debutó en Atys (Lully), para cantar después Les Fêtes vénitiennes (Campra), Jephtha (Handel), Dido and Aeneas (Purcell), Acis y Galatea (Handel), David and Jonathas (Charpentier), Caecilia, Virgen y Mártir y Actéon (Charpentier) además de diversos programas de concierto.
Rachel Redmond actúa asimismo regularmente con Jordi Savall y el Centre Internacional de Música Antigua, la Capella Mediterranea, el Collegio Ghislieri, el Baroque Music Centre of Versailles, el Ensemble Correspondances, el Ensemble Aedes, la Norwegian Chamber Orchestra, la Royal Liverpool Philharmonic Orchestra y la Orquesta Sinfónica Escocesa de la BBC. Recientemente, destacan sus debuts en Susanna (Las bodas de Fígaro, Mozart) con la English Touring Opera y en Dido y Eneas en el Festival d'Aix-en-Provence. Entre sus próximos compromisos se incluyen conciertos con la Freiburger Barockorchester (dir. Kristian Bezuidenhout) o con Trevor Pinnock, en el Festival de Saintes con el Ensemble Caravansérail, en el Festival de Lessay con el Dunedin Consort, Reinhard Keiser's Brocke's Passion en el Concertgebouw de Amsterdam, El Mesías de Handel o The English Concert (dir. Trevor Pinnock). Canta Dalinda en Ariodante en el Festival Internacional de Handel en Göttingen, Clorinda en Il combattimento di Tancredi y Clorinda de Monteverdi y Belinda en Dido and Aeneas de Purcell con la Orquesta Barroca de Helsinki.
Entre sus presentes títulos junto a Les Arts Florissants, destacamos su participación en el Magnificat de Bach, L'Allegro, il Penseroso ed il Moderato de Handel, y Leçons de tènèbres de Couperin.

**Myriam Rignol** zango-biola / **viola de gamba**
Perpiyànen jaio zen eta hantxe eman zituen musikako lehen urratsak. Gero, Lyoneko CNSMD-n ikasi zuen, eta baita ere Koloniako Hochschule für Musik-en eta Bruselako Errege Kontserbatorioan. Ensemble eta orkestra askok gonbidatzen dute bakarlari aritzeko, eta kontzertuak eskaini ditu herrialde askotan (Frantzia, Alemania, Espainia, Portugal, Suitza, Italia, Ingalaterra, Kroazia, Polonia, Errumania, Suedia, Norvegia, AEBak, Libano, Senegal, Japonia, Kolonbia, Txile, Mexiko, Brasil, etab.). Nazioarteko sari ugari jaso ditu, esaterako, Yamanashi lehiaketan (Kôfu – Japonia), MA Jaialdian (Brugge – Belgika) edo Bach-Abel Wettbewerb lehiaketan (Köthen – Alemania).
“Les Timbres” taldea sortu zuen Yoko Kawakubo biolin-jolearekin eta Julien Wolfs klabezin-jolearekin, eta lehen saria irabazi zuten Brujasko Ganbera Musika Lehiaketa ospetsuan (Belgika – 2009), eta baita ere Sormen-lan Garaikide Onenaren Saria, zeinari esker hainbat kontzertu eman baitituzte Europa osoan eta Japonian. Talde ospetsu askotako kide da, esaterako, Les Arts Florissants (William Christie eta Paul Agnew), Ensemble Pygmalion (Raphaël Pichon) eta Ricercar Consort (Philippe Pierlot), eta hainbat disko kaleratu ditu talde horiekin; baita ere kolaboratzen du Le Poème Harmonique (Vincent Dumestre), A Nocte Temporis (Reinoud Van Mechelen), Ensemble Correspondances (Sébastien Daucé) edo La Main Harmonique (Frédéric Bétous) bezalako talde eta orkestrekin.
Antzinako musikako katedra baten titularra izaki, 2011n zango-biola ikastaroa sortu zuen Besançon-eko Kontserbatorioan (orduan ESM BFC-ren babesarekin) non eskolak ematen jarraitzen baitu. 2021eko irailean zango-biolako irakasle izendatua izan zen CNSMDn.

Originaria de Perpiñán, donde dio sus primeros pasos en la música, Myriam Rignol se formó en el CNSMD de Lyon, en la Hochschule für Musik de Colonia y en el Real Conservatorio de Bruselas. Invitada regularmente como solista, en diferentes ensembles y orquestas, ha ofrecido conciertos en múltiples países (Francia, Alemania, España, Portugal, Suiza, Italia, Inglaterra, Croacia, Polonia, Rumania, Suecia, Noruega, EE. UU., Líbano, Senegal, Japón, Colombia, Chile, México , Brasil, etc.), y recibido numerosos premios internacionales como el Concurso Yamanashi (Kôfu – Japón), el  del Festival MA (Brujas – Bélgica), o el Bach-Abel Wettbewerb (Köthen – Alemania).
Es miembro fundador del conjunto “Les Timbres” con la violinista Yoko Kawakubo y el clavecinista Julien Wolfs, conjunto que recibió el Primer Premio en el prestigioso Concurso de Música de Cámara de Brujas (Bélgica – 2009) así como el Premio a la Mejor Creación Contemporánea, a raíz de éste han ofrecido conciertos en toda Europa y Japón. Forma parte de prestigiosas agrupaciones como Les Arts Florissants (William Christie y Paul Agnew), el Ensemble Pygmalion (Raphaël Pichon) y el Ricercar Consort (Philippe Pierlot) con los que ha participado en diversos lanzamientos discográficos, y colabora con otros conjuntos u orquestas como Le Poème Harmonique (Vincent Dumestre), A Nocte Temporis (Reinoud Van Mechelen), Ensemble Correspondances (Sébastien Daucé) o La Main Harmonique (Frédéric Bétous).
Titular de una cátedra en música antigua, creó en 2011 la clase de viola da gamba en el Gran Conservatorio de Besançon (entonces respaldado por la ESM BFC) donde todavía imparte clases. En septiembre de 2021 fue nombrada asimismo profesora de viola da gamba en la CNSMD

**William Christie** musika zuzendaritza eta organoa / **dirección musical y órgano**
William Christie azken berrogei urteetako abentura musikal garrantzitsuenetako baten bultzatzailea da. Klabezin-jolea, orkestra zuzendaria, musikologoa eta irakaslea, aitzindari izan zen musika barrokoa birdeskubritzeko langintzan, publiko zabalarengana hurbildu zuelarik XVII. eta XVIII. mendeetako errepertorio frantsesa. Amerikarra jaiotzez, Frantzian bizi da 1971tik, eta bere ibilbideak norabide erabakigarria hartu zuen 1979an, Les Arts Florissants sortu zuenean. Instrumentuz eta ahotsez osaturiko talde honen buru delarik, errepertorio lirikoa eskaintzen du bere kontzertuetan, estilo oso pertsonal batekin. 1987an biziki ospetsu bihurtu zen, Lully-ren Atys obra eskaini zuenean Pariseko Opéra Comique aretoan, eta nazioarteko beste areto garrantzitsu askotara ere eraman zuen produkzio hura. Charpentier-etik Rameau-raino eta Couperin-etik Mondonville-raino, William Christie-k maisuki zuzentzen ditu tragedia lirikoak, opera-baletak, motete frantsesak eta gorteko musika. Baina musika frantsesarekiko atxikimendu horrek ez dio eragozten Monteverdi, Rossi, Purcell, Handel, Mozart, Haydn edo Bachen errepertorioak lantzea.
Bere produkzio lirikoen artean aipatzekoak dira Haendelen Jephtha eta Ariodante (2018), Pariseko Operan eta Vienako Staatsoper aretoan eskainiak; eta baita ere John Gay-ren The Beggar's Opera eta Monteverdiren L'incoronazione di Poppea, lehenengoa Théâtre des Bouffes du Nord aretoan zuzendu zuena eta bigarrena Salzburgoko jaialdian. William Christie maiz aritzen da zuzendari gonbidatu gisa Berlineko Filarmonikan eta Orchestra of the Age of Enlightenment orkestran, eta eszenatoki ezagunetara eraman ditu orkestra horiek, hala nola Glyndebourneko Jaialdira eta Metropolitan Opera edo Zuricheko Opernhaus aretoetara.
Ehundik gora disko grabatu ditu,  horietatik azkenak -Meza Si minorren, “N'espérez plus, mes yeux” eta L'incoronazione di Poppea- Harmonia Mundi zigiluaren “Les Arts Florissants” bildumaren barruan. Heziketarekin duen konpromisoa indartu nahian, 2022an Académie du Jardin des Voix sortu zuen. 2007tik artista egoiliarra da New Yorkeko Juilliard School of Music-en, zeinetan eskola magistralak ematen baititu urtean birritan, eta 2021ean musikari profesional gazteei zuzendutako lehen eskola magistralak eskaini zituen Les Arts Florissants taldearekin Quartier des Artistes (Thiré, Vendée) zentroan. 2012an Dans les Jardins de William Christie jaialdia sortu zuen Thiré hirian, bertan bildu zituelarik Les Arts Florissants, Juilliard School-eko ikasleak eta Jardins des Voix ekimeneko irabazleak. 2018an bere ondare guztia eman zion William Christie-Les Arts Florissants Fundazioari.

William Christie es el artífice de una de las aventuras musicales más notables de los últimos cuarenta años. Clavecinista, director de orquesta, musicólogo y docente, desempeñó un papel pionero en el redescubrimiento de la música barroca al traer a la luz a un amplio público el repertorio francés de los siglos XVII y XVIII. Americano de nacimiento y residente en Francia desde 1971, su carrera dio un giro decisivo cuando creó Les Arts Florissants en 1979.
Al frente de este conjunto instrumental y vocal, presenta en concierto el repertorio lírico con una firma muy personal. Fue en 1987 cuando experimentó una verdadera consagración con Atys de Lully en la Opéra Comique de París, producción que giró a muchas otras grandes salas internacionales. De Charpentier a Rameau, pasando por Couperin y Mondonville, William Christie es el maestro indiscutible de las tragedias líricas, ópera-ballets, motetes franceses y música de corte. Un apego a la música francesa que no le impide explorar también los repertorios de Monteverdi, Rossi, Purcell, Handel, Mozart, Haydn o Bach.
Entre sus producciones líricas, mencionemos en 2018 Jephtha y Ariodante de Handel, respectivamente en la Ópera de París y la Staatsoper de Viena, así como The Beggar's Opera de John Gay en el Théâtre des Bouffes du Nord, o L'incoronazione di Poppea de Monteverdi en el Festival de Salzburgo. Como director invitado, William Christie dirige regularmente orquestas como la Filarmónica de Berlín o la Orchestra of the Age of Enlightenment en escenarios como el Festival de Glyndebourne, la Metropolitan Opera o la Opernhaus de Zúrich.
Su discografía incluye más de un centenar de grabaciones, las últimas de las cuales – La Misa en Si menor, “N'espérez plus, mes yeux” y L'incoronazione di Poppea – han formado parte de la colección “Les Arts Florissants” de Harmonia Mundi. En su afán por profundizar en su faceta de formador, fundó en 2002 la Académie du Jardin des Voix. Desde 2007 es artista residente en la Juilliard School of Music de Nueva York donde imparte clases magistrales dos veces al año, y lanza en 2021 con Les Arts Florissants las primeras masterclasses en el Quartier des Artistes (Thiré, Vendée) para jóvenes músicos profesionales. En 2012, creó el festival Dans les Jardins de William Christie en Thiré, donde reunió a Les Arts Florissants, a sus alumnos de la Juilliard School y a los ganadores del Jardin des Voix. En 2018, donó todo su patrimonio a la Fundación William Christie - Les Arts Florissants.

**Les Arts Florissants**
William Christie-k 1979an sortua, Les Arts Florissants ahots eta instrumentuz osatutako talde barroko bat da, eskaera handia duena mundu osoan.
Musika barrokoaren interpretazioan espezializatuta dauden eta antzinako instrumentuekin jotzen duten abeslari eta instrumentistaz osatutako talde hau aitzindaria izan da XVII. eta XVIII. mendeetako errepertorio barrokoa berreskuratzeko zereginean. William Christie eta Paul Agnew zuzendarien batutapean, ehundik gora kontzertu eta opera emanaldi eskaintzen ditu Frantziako eta mundu osoko areto garrantzitsuenetan, operak eta oratorioak interpretatuz bertsio eszenifikatuan edo erdi-eszenifikatuan, eta orobat eskala handiko kontzertuak, ganbera-musikakoak edo errezitaldiak.
Les Arts Florissants taldeak hainbat hezkuntza-programa abiarazi ditu musikari gazteentzat: abeslari gazteentzako Le Jardin des Voix akademia, 2002an sortua; kolaborazio bat The Juilliard School-ekin 2007tik; eta kontserbatorioko ikasleentzako “Arts Flo Juniors” programa. Entzule berriak sortzera bideratutako ekitaldi ugari ere antolatzen ditu.
Bere errepertorio zabala ezagutzera emateko, ehun grabaketa inguruko diskografia paregabea (CDak eta DVDak) dauka, batez ere Harmonia Mundi zigiluarekin lankidetzan sortutako bildumarekin osatua.
Les Arts Florissants-ek Pariseko Philharmonie aretoan dauka egoitza 2015etik, eta lotura estua du baita ere Frantziako Vendée eskualdearekin, bertan bizi baita William Christie. Hain zuzen, bera bizi den Thiré herrian inauguratu zen Dans les Jardins de William Christie jaialdia 2012an, Vendée eskualdeko Conseil départamental erakundearekin lankidetzan. Hala, Les Arts Florissants-en jarduera-gune nagusi bihurtu da, eta proiektu garrantzitsuak garatzen ditu bertan. 2017a urte erabakigarria izan zen hainbat arrazoirengatik: Thiré-n kokatu zen Le Jardin des Voix, hasiera eman zitzaion Paul Agnew-k zuzentzen duen Udaberriko Jaialdiari eta taldeak “Centre culturel de Rencontre” zigilu nazionalaren saria jaso zuen. 2018an Chirstie-k Les Arts Florissants – William Christie Fundazioa sortu zuen eta Thiré-n zituen jabetza guztiak oparitu zizkion Fundazio horri.

Fundada en 1979 por William Christie, Les Arts Florissants se ha convertido en una de las agrupaciones barrocas vocales e instrumentales más solicitadas del mundo.
Conjunto de cantantes e instrumentistas especializados en la interpretación de música barroca con instrumentos de época, Les Arts Florissants ha jugado un papel pionero en la recuperación del repertorio barroco de los siglos XVII y XVIII. Bajo la batuta de William Christie y Paul Agnew, el conjunto ofrece alrededor de cien conciertos y funciones de ópera en las salas más prestigiosas Francia y el resto del mundo, interpretando óperas y oratorios, escenificadas o en versión semi-escénica, así como conciertos a gran escala, música de cámara o recitales.
Les Arts Florissants ha lanzado varios programas educativos para jóvenes músicos: la Academia de “Le Jardin des Voix” para jóvenes cantantes creada en 2002; una colaboración con The Juilliard School desde 2007; y el programa “Arts Flo Juniors” para los estudiantes de conservatorio. También organiza numerosos eventos destinados a crear nuevas audiencias.
Para dar a conocer su amplio repertorio, disponen de una impresionante discografía con cerca de 100 grabaciones (CD y DVD), especialmente con su propia colección en colaboración con Harmonia Mundi.
Con residencia en la Philharmonie de París desde 2015, Les Arts Florissants también ha establecido un fuerte vínculo en Vendée, una región de Francia donde William Christie hizo su hogar. De hecho, en el pueblo de Thiré, donde vive, se inauguró el Festival Dans les Jardins de William Christie en 2012 en colaboración con Conseil départemental de la Vendée. Este lugar se ha convertido en el núcleo de actividad de Les Arts Florissants, con importantes proyectos. El 2017 fue un año crucial en este aspecto, con el establecimiento de Le Jardin des Voix en Thiré, la creación de un Festival de Primavera dirigido por Paul Agnew y el galardón del sello nacional «Centre culturel de Rencontre». En 2018 se creó la Fundación Les Arts Florissants – William Christie. William Christie regaló su propiedad completa de Thiré a la Fundación.